

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: Idatzizko komunikazioa

Ikasketa Planean adierazitakoa: Idatziz ongi komunikatzeko, transmititzeko eta harremanetan jartzeko gai izatea, tituluari dagokion hizkuntza teknikoa erabilia.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



1. maila: Idatzizko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Planteatutako ariketei buruzko iritzia idatziz komunikatzea, modu argi eta zuzenean.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Arretaz irakurtzen du emandako informazioa, eta argi identifikatzen du zer galderari erantzun behar zaien edo zer dokumentu idatzi behar den.	Argi identifikatzen du egin beharreko lana.
Gramatikalki eta ortografikoki zuzen idazten du.	Idazlana zuzena da ortografiari eta sintaxiari dagokienez, eta ongi erabiltzen ditu puntuazio zeinuak.
Bere ideiak zuzen eta argi adierazten ditu idatziz, kasu praktikoei erantzutean edo dokumentuak idaztean.	Bere ideiak argi adierazten eta argudiatzen ditu.
Dokumentu mota eta hartzailearentzako hizkuntza egokia erabiltzen du.	Gaiari dagokion terminologia zuzen erabiltzen du.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Administrazio Zuzenbidea (gaitasuna koordinatzen duena), Zuzenbide Zibila, Sozietateen Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea, Ekonomia Politikoa, Lan Arloko Psikologia, Lan Arloko Soziologia.

4. ZEREGINAK

Kasu praktikoei, txostenei eta informazio bibliografikoari buruzko idazlanak aurkeztea, bakarka eta taldeka.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Administrazio Zuzenbidea (gaitasuna koordinatzen duena), Zuzenbide Zibila, Sozietateen Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea, Lan Arloko Psikologia, eta Lan Arloko Soziologia irakasgaiek jasota dute gaitasun hau beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen dute.

Administrazio Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Gaitasuna ebaluatzeko, ikasleek kasu praktiko baten ondorioak idatziz jasoko dituzte, administrazio dokumentu bat idatziko dute, eta idatzizko azterketa objektibo bat egin beharko dute.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 25 da.

Zuzenbide Zibila:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, ikerketako gai monografiko bati buruzko blog bat idatzi behar da, eta kontratu nahiz txosten errazak egin behar dira, aurrez aurreko praktiketan.

Gaitasunaren ebaluazioan, batetik, bloga egitea % 20 baloratzen da, eta, bestetik, praktikaren idazlanak % 20 baloratzen dira, irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren gainean.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, aldez aurretik planteatutako arazo bat konpontzeko jardun gida bat prestatu eta idatzi behar da (bakarka edo taldeka), eta dokumentu edo txosten labur bat idatzi behar da, honako hauek jasota: problemaren



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

planteamendua, ebazpena iristeko jarraitutako prozesua, proposatutako lege konponbidea, taldearen banakako/taldeko balorazioa eta ebaluazioa.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 10 da, eta adierazle bakoitzak osoaren % 25 balio du.

Ekonomia Politikoa:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko zereginetan, ikasleak lankidetzat talde txikitan banatzen dira, eta ekonomiaren arloko ikerketa txiki bat egin beharko dute. Ikerketan, datu-base egokiak erabili, eskuratutako informazioan oinarritutako txosten kohesionatu eta koherente bat idatzi, ondorio sendoak atera, eta aipuak eta erreferenteak txertatu behar dira, eredu estandar batean.

Gaitasunaren ebaluazioaren pisua % 30 da, ikerlan horri emandako azken kalifikazioaren gainean. Kalifikazio horren barruan, berriz, % 60 dagokio idatzizko komunikazioari.

Lan Arloko Psikologia:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko zereginetan, ikasleek idazlan bat egin behar dute bakarka edo taldeka, lan akademiko baten jarraibideen arabera, eta garatu beharreko azterketa teoriko bat egin behar dute.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Gaitasunaren ebaluazioan, idazlana % 15 eta azterketa % 50 baloratzen dira, hurrenez hurren, irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren gainean.

Lan Zuzenbidea eta Lan Arloko Soziologia irakasgaien diseinua nahita egina dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



2. maila: Idatzizko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Idatziz komunikatzeko erraztasuna edukitzea, testuaren edukia eta laguntza grafikoak egituratuz, ulermena errazteko eta irakurlearen interesa erakartzeko, luzera ertaineko idatzietan.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Datuak erlazioan jartzen ditu, ondorioak ateratzeko.	Datuak ongi lotzen ditu, ondorioak justifikatzeko.
Testua egituratzen du, haren ulermena errazteko.	Epigrafeen segidak ulermena errazten duen ordenari jarraitzen dio.
Edukiak transmititzeko hizkuntza egokia erabiltzen du.	Zehatza da, eta adibideen bidez ilustratzen ditu interpretazio okerrak eragin ditzaketen alderdiak.
Edukiari egokitutako taulak eta grafikoak sartzen ditu.	Grafikoak eta taulak erabiltzen ditu, testuari balio erantsia emanez.
Bibliografia egokia erabiltzen eta aipatzen du.	Ongi erabiltzen ditu bibliografia eta aipuak.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak (irakasgaia koordinatzen duena); Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak; Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia, eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I.

Ebaluazio sisteman kalifikatu ez arren, gaitasuna garatzeko lagungarriak diren beste irakasgai batzuk: Kontabilitaterako Sarrera, Finantza Kontabilitatea, Ekonomia eta Ogasun Sistema, eta Sindikatu Zuzenbidea.

4. ZEREGINAK

Praktiken, txostenen eta abarren idazlanak aurkeztea, taldeka eta bakarka.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak (gaitasuna koordinatzen duena), Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak, Enpresa Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia, eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I irakasgaiak gaitasuna jasota dute beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen dute.

Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak:

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, praktikak aurkeztu behar dira, eta haien defentsa egin behar da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Gaitasuna ebaluatzean, adierazle bakoitzaren pisua proportzionala da, eta adierazle guztien ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 30 da.

Teknika Kuantitatiboak:

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, praktikak aurkeztu behar dira, eta haien defentsa egin behar da.

Gaitasuna ebaluatzean, adierazle bakoitzaren pisua proportzionala da, eta adierazle guztien ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 30 da.

Enpresen Kudeaketa I:

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, kasu praktikoak aztertzen eta aurkezten dira, eta gai bat landu eta aurkeztu behar da.

Adierazle guztien ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituaren % 30 da.

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I:

Gaitasunaren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, zeregin hauek egin behar dira:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

- Testu legegileak, doktrinalak eta judizialak analizatzea eta ulertzea.
- Aurreko testuak eta planteatutako suposizio faktikoak interpretatzea, lege aurreikuspenen baitan kokatzeko eta errazago ebazteko.
- Ebatzi beharreko ariketei buruz emandako informazioa eskematizatzea modu grafiko eta kronologikoan.
- Test erako galderak adieraztea, ikaskideei baliagarriak izango zaizkienak, lankidetzan, autoebaluatze eta eskuratutako ezagutzen aplikazioaren menderatze maila egiaztatzeke.

Adierazleen ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 35 da.

Kontabilitaterako Sarrera, Finantza Kontabilitatea, Ekonomia eta Ogasun Sistema, eta Sindikatu Zuzenbidea irakasgaien diseinua nahita egina dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak, Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak, Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia, eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunaren menderatze maila egokia lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeke tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeke.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



3. maila: Idatzizko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Idatzizko komunikazioan konbentzitzeko gai izatea, edukia antolatzeko eta adierazteko estilo propioa erakutsiz idatzi luze eta konplexuetan.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Idatzizko hizkuntza zuzena eta egokia erabiltzen du.	Akatsik gabe idazten du, komunikazioaren arlo honetan (ortografia eta gramatika akatsak, hiztegi urria...).
Gaiaren garapena osoa eta originala da.	Zuzen aipatzen du doktrina zientifikoa, bere planteamenduak egiaztatzeko, eta erabilitako bibliografia sartzen du.
Aldeak lotzeko lagungarriak diren numerazioak erabiltzen ditu.	Paragrafoen hierarkia nabarmentzen du, eta gainera sangriak erabiltzen ditu.
Hizkuntza menperatzen du, eta argi adierazten da, gaiari dagokion hizkuntza tekniko-juridikoa zuzen erabilia.	Idatziari bizitasuna emateko, zuzen erabiltzen ditu hainbat baliabide (galderak, harridurak, latindar lokuzioak, etab.)
Idatzia, bere osotasunean, egokia da hartzailearentzat eta proposatutako helburuentzat.	Epigrafe bakoitzak sarrera labur bat eta amaierako laburpen bat sartzen ditu.
Testua hobeto ulertzeko eta irakurketa atsegina izateko adibideak, jurisprudentziako aipuak, prentsa albisteak, etab. erabiltzen ditu.	Adibideak edo aipuak idazlanaren egituran (izenburuak, epigrafeak, etab.) txertatuta daude.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Lan Ekonomia; Enpresen Kudeaketa II: Antolakuntza eta Metodoak; Lan eta Gizarte Politikak; Zuzenbide Prozesala; Laneko Osasuna eta Prebentzioa; Gizarte Segurantzza II; Lan Harremanen Teoria eta Egitura.

4. ZEREGINAK

Praktiken, txostenen eta abarren idazlanak aurkeztea, taldeka eta bakarka.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II (gaitasuna koordinatzeko ardura duena); Enpresen Antolakuntza II, eta Laneko Osasuna eta Prebentzioa irakasgaiek gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen dute. Haien ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

Gizarte Segurantzza II:

Gaitasun orokorraren adierazleak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, ikasturtearen hasieran proposatutako gai baten garapen teorikoa landu, eta gero aurkeztu egin behar da, eta irakasgaian arian-arian planteatutako diren alderdi praktikoetarako irtenbideak bilatu behar dira.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Gaitasunaren ebaluazioa % 50 da, irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren gainean (kalifikazio osoaren % 20). Notaren gainerakoa gaiaren berezko zereginei dagokie.

Enpresen Kudeaketa II: Antolakuntza eta Metodoak

Gaitasunaren adierazleak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran moodlen argitaratutako zeregin bakoitzaren ebaluazio irizpideak oinarri hartuta. Ebaluazioan, aintzat hartuko dira zereginen euskarri idatzia eta birtuala. Egin beharreko lanak, bestalde, hauek dira: gai bat prestatzea eta defendatzea (2 puntu, amaierako notan), 6 kasu praktikoen ebazpena defendatzea (3 puntu, amaierako notan) eta kontzeptuen azterketan egindako 4 galdera teorikori erantzutea (2,5 puntu, amaierako notan).

Laneko Osasuna eta Prebentzioa:

Ikasturte osoan, zuzen eta egoki idaztearen beharra azpimarratuko da.

Askotariko zereginak egin behar dira: egindako bilaketen idazlanen aurkezpenetatik hasita, gai zehatzei buruzko txosten idatziak aurkezteraino. Zereginak zuzendu –hizkuntza alderdiak barne (zuzenketa mota guztiak hartzearen)– ondoren, lanen edukiaren balorazioaz gainera, ikasle bakoitzak hizkuntza zuzenketa jasoko ditu testuan bertan, zuzenketa kopuru gehiegizkoak horrelakorik egitea eragozten duen kasuetan izan ezik (testu bat ulergarri izateko egin beharreko zuzenketa ez dira, gure ustez, irakaslearen eginkizunak). Azken finean, ikasleari ongi idatzita ez dagoen zeregin bat ez gainditzeko aukeraz ohartarazten zaio, eta gaineratzen da hori bera gerta daitekeela idatzizko azterketan.

Gaitasunaren balorazioa lehen adierazlearen bidez egitea da, eta irakasgaiaren alderdi praktikoen % 40 da (alde praktikoa=azken notaren % 25).



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Ekonomia, Lan eta Gizarte Politikak, Zuzenbide Prozesala eta Lan Harremanen Teoria eta Egitura irakasgaien irakaskuntza diseinua nahita egin dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunaren menderatze maila egokia lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



4. maila: Idatzizko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Idatzizko komunikazioaren bidez modu autonomoan konbentzitzeko gai izatea, idatzi luze eta konplexuen edukia egituratzeko estilo propioa, adierazpen egokia eta beharrezkoak diren laguntza grafikoak erabilia.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Modu zuzen eta egokian adierazten da	Enuntziatuak kohesioz lotzen ditu Testuaren eraginkortasun komunikatiboa hobetzeko estrategiak erabiltzen ditu Arau gramatikalak, lexikoak eta ortografikoak errespetatzen ditu Askotariko hizkuntza baliabideak erabiltzen ditu: sintaktikoak, lexikoak... Adierazpen baztertzailen erabilera saihesten du Testuaren aurkezpen egokia eta zuzena egiten du



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Testua hobeto ulertzeko eta irakurketa atsegina izateko adibideak, jurisprudentiako aipuak, prentsa albisteak, etab. erabiltzen ditu.	Adibideak edo aipuak idatziaren egituran (izenburuak, epigrafeak, etab.) txertatzen dira.
Idatzia, bere osotasunean, egokia da hartzailearentzat eta proposatutako helburuentzat.	Epigrafe bakoitzak sarrera labur bat eta amaierako laburpen bat dauka, eta koherentea da idatzi osoarekiko.
Aintzat hartzen ditu komunikazio egoeraren ezaugarriak	Aintzat hartzen ditu hartzailearen interesak eta ezagutzak Xedearen araberrako testu genero egokia hautatzen du Erregistro egokia hautatzen du
Testuak eskatzen duenean, iritzi originalak ematen ditu	Egoerak, beste testu batzuk, eta abar kritikatzeko modu positiboan edo negatiboan, eta proposamenak edo galderak egiten ditu.

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Laneko Arriskuen Prebentzioa Lanaren Antolakuntzan irakagaiak gaitasun hau koordinatzen du, eta, horrekin batera, honako irakasgai hauek ditugu:

- Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak (koordinatzailea: Xabier Alberdi)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak (koordinatzailea: Xabier Alberdi)
- Globalizazioa eta Lan Arloa (koordinatzailea: Patricia Campelo)



4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Laneko Arriskuen Prebentzioa Lanaren Antolakuntzan:

- Banakako lan bat (kasu praktiko baten modura)
- Talde lan bat (Laneko Arriskuak Prebenitzeko Kudeaketa Sistema baten euskarri dokumentala)
- Amaierako azterketa.

Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak

- a) Banakako idazlanak: hiru azalpen testu eta gutun formal bat.
- b) Komunikazio eraginkorrari buruzko taldeko edo banakako lan bat.
- c) Lege testu bati buruzko banakako edo taldeko lan bat.
- d) Lege testu baten terminologiari buruzko taldeko edo banakako lan bat [AUKERAKOA].

Euskararen Arauak eta Erabilera

- Banakako hainbat idazlan.
- Banakako edo taldeko lan bat: artikulua baten laburpena eta iritzi artikulua.
- Banakako edo taldeko lan bat: artikulua baten laburpena eta iritzi artikulua bat.
- IVAPeko Estilo Liburuari buruzko taldeko lan bat [AUKERAKOA].



Globalizazioa eta Lan Arloa

- Banakako lan bat (irakasgaiaren gai bati buruzko saiakuntza).
- Irakasleak gai bakoitzeko hautatutako testu laburren banakako iruzkina.
- Liburu baten laburpena eta iruzkina (hainbatetan artean aukeratzeko).

5. EBALUAZIO SISTEMA

Laneko Arriskuen Prebentzioa Lanaren Antolakuntzan, Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak, Euskararen Arauak eta Erabilerak eta Globalizazioa eta Lan Arloa irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen dute.

Haien ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

Prebentzioa Lanaren Antolakuntzan

Gaitasuna koordinatzen duen irakasgaia denez, 2. atalean deskribatutako adierazle guztiak ebaluatzen ditu.

Gaitasuna ebaluatzeko sistema ikasturteko lehengo eskolan ematen da ezagutzera, eta irakasgaiaren ebaluazio sistema orokorraren parte gisa deskribatzen da, irakasgaiaren ikasketen gidaliburuan.

Gaitasuna 4. atalean dagoeneko aipatu ditugun zereginen bidez ebaluatzen da, hau da: banakako lan bat, taldeko lan bat, eta amaierako azterketa.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Zereginetik pisu bera dute, eta, oro har, gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren **nota osoaren % 10 da.**

Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak

Irakasgai honetan, 2. atalean deskribatutako adierazle guztiak ebaluatzen dira.

Gaitasuna ebaluatzeko sistema ikasturteko lehengo eskolan ematen da ezagutzera, eta irakasgaiaren ebaluazio sistema orokorraren parte gisa deskribatzen da, irakasgaiaren ikasketen gidaliburuan.

Gaitasuna 4. atalean aipatu diren zereginen bidez ebaluatzen da, hots:

- a) Banakako idazlanak: hiru azalpen testu eta gutun formal bat.
- b) Komunikazio eraginkorrari buruzko taldeko edo banakako lan bat.
- c) Lege testu bati buruzko banakako edo taldeko lan bat.
- c) Lege testu baten terminologiari buruzko taldeko edo banakako lan bat [AUKERAKOA].

Irakasgaiaren ebaluazioan, zeregin horiei ehuneko hauek esleitzen zaizkie:

a) Banakako idazlanak: hiru azalpen testu eta gutun formal bat.	% 12,5
b) Komunikazio eraginkorrari buruzko taldeko edo banakako lan bat	% 15



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

c) Lege testu bati buruzko banakako edo taldeko lan bat	% 15
d) Lege testu baten terminologiari buruzko taldeko edo banakako lan bat [AUKERAKOA]	% 25
GUZTIRA	% 67,5 Irakasgaiaren osoarekiko

Euskararen Arauak eta Erabilera

Irakasgai honetan, 2. atalean deskribatutako adierazle guztiak ebaluatzen dira.

Gaitasuna ebaluatzeko sistema ikasturteko lehengo eskolan ematen da ezagutzera, eta irakasgaiaren ebaluazio sistema orokorraren parte gisa deskribatzen da, irakasgaiaren ikasketen gidaliburuan.

Gaitasuna 4. atalean aipatu diren zereginen bidez ebaluatzen da, hots:

- Banakako hainbat idazlan.
- Banakako edo taldeko lan bat: artikulua baten laburpena eta iritzi artikulua bat.
- Banakako edo taldeko lan bat: artikulua baten laburpena eta iritzi artikulua.
- IVAPeko Estilo Liburuari buruzko taldeko lan bat [AUKERAKOA].

Irakasgaiaren ebaluazioan, zeregin horiei ehuneko hauek esleitzen zaizkie:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

a) Banakako hainbat idazlan.	Idazlanak zeregin handiagoetan txertatzen dira, eta % 10 inguru izan daitezke
b) Banakako edo taldeko lan bat: artikulua baten laburpena eta iritzi artikulua bat.	% 15
c) Banakako edo taldeko lan bat: artikulua baten laburpena eta iritzi artikulua bat.	% 15
d) IVAPeko Estilo Liburuari buruzko taldeko lan bat [AUKERAKOA]	% 25
GUZTIRA	% 65 Irakasgaiaren osoarekiko

Globalizazioa eta Lan Arloa

Adierazle hauek ebaluatzen ditu:

- Modu zuzen eta egokian adierazten da.
- Testua hobeto ulertzeko eta irakurketa atsegina izateko adibideak, jurisprudentiako aipuak, prentsa albisteak, etab. erabiltzen ditu (batik bat aipu bibliografikoak, hitzez hitzekoak izan ala ez).



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

- Testuak eskatzen duenean, iritzi originalak ematen ditu.

Gaitasuna ebaluatzeko sistema ikasturteko lehen eskolan emango da ezagutzera.

Zeregin hauek ebaluatzen dira:

- Banakako lana (% 60).
- Irakasleak gai bakoitzeko hautatutako testu laburren bakarkako iruzkina (% 15).
- Liburu baten laburpena eta iruzkina (% 25).

Gaitasunaren ebaluazioa **irakasgaiaren nota osoaren % 15 da.**

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. maila: Gradu Amaierako Lana Idatzizko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. Menderatze maila

Idatzizko komunikazioaren bidez modu autonomoan konbentzitzeko gai izatea, idatzi luze eta konplexuen edukia egituratzeko estilo propioa, adierazpen egokia eta beharrezkoak diren laguntza grafikoak erabilia.

2. Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Gaiaren garapena osoa eta originala da.	Zuzen aipatzen du doktrina zientifikoa, bere planteamenduak egiaztatzeko, eta erabilitako bibliografia sartzen du.
Hizkuntza menderatzen du, eta adierazpen argia du, gaiari dagokion hizkuntza tekniko-juridikoa zuzen erabilia.	Idatzari bizitasuna emateko, zuzen erabiltzen ditu hainbat baliabide (galderak, harridurak, latindar lokuzioak, etab.).
Idatzia, bere osotasunean, egokia da hartzailearentzat eta proposatutako helburuentzat.	Epigrafe bakoitzak sarrera labur bat eta amaierako laburpen bat dauka, eta koherentea da idatzi osoarekiko.
Testua hobeto ulertzeko eta irakurketa atsegina izateko adibideak, jurisprudentziako aipuak, prentsa albisteak, etab. erabiltzen ditu.	Adibideak edo aipuak idatziaren egiturari (izenburuak, epigrafeak, etab.) txertatzen dira.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Gradu Amaierako Lana

4. Zeregina

Gradu Amaierako Lana egitea.

Elkarrizketak egitea tutorearekin, txostena idazteko jarraipen prozesuan, eta aztergaiari dagokion terminologia zientifiko egokia ahoz adierazteko gai izatea.

5. Ebaluazio sistema:

Adierazleak GRALei buruzko arautegian ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira. Irizpide horiek publikoak dira. GRALaren faseak edo zereginak honela haztatzen dira:

Tutoreak GRAL prozesua baloratzeko eginiko txantiloia: % 40

GRALaren azken memoriaren edukia eta forma: % 30

GRALaren aurkezpena epaimahaiaren aurrean: % 30